



 Oporretako
Koaderno
Digitala **3.
maila**

1. Fitxa teknikoa

OKD – Oporretako Koaderno Digitala Lehen Hezkuntzako 3. mailarako aplikazioa da, eta Windows ingurunean ibiltzeko eraikita dago. *Pen-drive* formatuan dago erabilgarri, eta nahikoa izango duzu ordenagailuaren USB-sarreran sartzearekin.

Pantailaren gutxieneko bereizmena 1.024 x 600ekoa da. Hortik aurrerako ordenagailu guztietan erabil liteke.

2. Ezaugarriak

Ikastolen Elkartek atera duen produktu berria da ***OKD – Oporretako Koaderno Digitala***, eta ikasturtean zehar landu diren edukiak berrikusteko jarduerak eskaintzen ditu, honako bost arlo hauetan: Euskara, Gaztelania, Ingelesa eta Matematika.

Ordu erdiko zortzi saiok edo sekuentziak osatzen dute arlo bakoitza, eta, guztira, 40 saio dira. Materiala osatzen duten jarduerak zailtasunaren arabera mailakatu ditugu, eta hainbat multimedia-baliabidez hornitu.

Ariketak egin ahala, hainbat datu gordeta geratzen dira, besteak beste, egindako ariketa-kopurua, erantzunen zuzentasun-portzentajea eta denbora. Gurasoek, ondoren, datu horiek guztiak eskuratzeko aukera izango dute.

Oporretako Koaderno Digitala, hein handian, ikastoletan ikasle askok erabiltzen duten IKASYS proiektuan oinarritzen da; egitasmo horretarako sortu diren jarduerak oso baliagarriak baitira, besteen artean, udako lanak bideratzeko.

3. Programa instalatzeko

Pen-drivea lehenengoz ordenagailuan sartzen duzunean, instalazioa bera bakarrik jarriko zaizu martxan. Horrela ez bada, egin bi klik barruan ikusiko duzun OKD.exe lasterbidean.

Firefox Interneteko nabigatzailea erabiltzen du programak. Hala ere, Firefox instalatu beharrik ez dago, *pen-driveak* berak dakar barruan.

Programak, Apache eta MySQL zerbitzariak ere erabiltzen ditu. Baina zuk, ez duzu horretaz kezkatu beharrik. Beharrezkoak diren prozesu guztiak bakarrik abiatu eta bukatuko dira programarekin batera.

Ondoren, programa ordenagailura kopiatuko zaizu, eta bukatzen duenean, programa abiatu egingo da. Hurrengoetan, instalazioa egina duen ordenagailu batean *pen-drivea* erabiltzen duzun bakoitzean, bera bakarrik abiatuko da programa.

Ordenagailu batean baino gehiagotan erabili daiteke programa. Bakoitzean instalatu, eta erabiltzailea eta haren datuak eta jarraipena berberak izango dira guztietan. Hau da, erabiltzaile- eta jarraipen-datuak *pen-drive*an bertan gordetzen dira.

4. Programarekin aritzeko

Programa abiatu, eta zure erabiltzaile-izena eta pasahitza idatzi behar dituzu.

Lehen aldia bada, lehenenik, sortu egin beharko duzu erabiltzailea.



Erabiltzailea:

Pasahitza:

Sartu 

Erabiltzailea sortu

Erabiltzailea:

Pasahitza:

Errepikatu pasahitza:

Sortu 

Ondoren, ikasturteari dagozkion arloak aterako zaizkizu pantailan. Landu nahi duzuna aukeratu, eta *sartu* atala hautatu.



Arlo bakoitzean, 8 koaderno aurkituko dituzu, eta koaderno bakoitza hainbat gelaxkaz osatuta dago. Gelaxka horietan, zailtasunaren arabera mailakatuta, hainbat eratako ariketak daude. Koadernoaren luzera, ikaslearen adinaren eta ariketa tipologiaren arabera da.

Gelaxketan, aurreratze-irizpide jakin batzuen arabera arituko zara lanean. Irizpide estandarra hau da: gelaxka batean hiru ariketa zuzen jarraian eginez gero, hurrengo gelaxkara pasatuko zara; horrela ez bada, ariketen %60 egin, eta horietatik %60ri zuzen erantzuten badiezu, gelaxka gainditu egingo duzu eta, azkenik, aurreko baldintzak bete ezean, ariketen %150 egiten badituzu, hurrengo gelaxkara joango zara. Hala ere, zenbait tipologiatan, bestelako irizpideak ere erabili dira: batzuetan, gelaxkako 10 ariketak egitea eskatzen da, edo letra-zopetan, bati zuzen erantzutea nahikoa da hurrengora pasatzeko.

Nahi duzun koadernoaren *Sartu* aukeran klik egin, eta ariketak egiten has zaitezke.



Ariketa bakoitza, honen antzeko pantaila batean agertuko zaizu. Honako hau adierazten dute pantaila honetan dauden elementuek:



- 1.- Zenbatgarren koadernoan ari zaren adierazten dizu.
- 2.- Eginak daukazun ariketetatik, zuzen zenbat egin dituzu adierazten dizu, ehunekoetan. Zenbakiaren arabera, kolorea ere aldatzen joango da.
- 3.- Koaderno bakoitzean dagoen zenbat gelaxka dauden, eta horietatik, eginak zenbat daukazun esaten dizu. Adibideko irudian, 1/25 ageri da; beraz, 25 gelaxka dira guztira, eta lehenengoa egiten ari zara.
- 4.- Audio-ikurra: enuntziatu guztiak audioz entzuten dira, eta ariketa batzuetan, audioa ere beharrezkoa da. Audioa itzali nahi bada, ikur hori sakatu behar da.
- 5.- Enuntziatua: ariketan zer egin behar den azaltzen du, modu orokorrean. Ondoren, pantailan agertzen da ariketa bakoitzean zer egin behar den.

Ikur horiez gain, beste hauek ere ager daitezke:



Play gezia sakatuta, ariketak dakarren audioa entzungo duzu. Ariketek audioa dutenean, erantzun aurretik, hori entzutea komeni da.

i Ikur hau agertzen denean, ariketa egiteko informazio edo laguntza gehigarria eskainiko zaizula adierazten du. Gainean klikatu behar duzu informazio gehigarri hori jasotzeko.

+ Zenbaitetan, irudien ondoan lupa agertuko zaizu. Sakatu eta irudia handitu egingo da.

Ariketaren erantzuna ez baduzu asmatzen, erantzun zuzena ikustera derrigortuta zaude.

The screenshot shows a web browser window with the title 'Oporretako Koaderno Digitala'. The address bar shows '3. maila | 01. koaderno'. The page content includes a navigation menu with 'AUKERATU' and 'AUKERATU EGOKIA'. The main question is 'ZEIN DA BIZKAIKO HIRIBURUA?'. There are five radio button options: IRUÑEA (selected), BAIONA, DONOSTIA, BILBO (highlighted with a dashed red border), and GASTEIZ. At the bottom, a red error message reads 'ERANTZUNA EZ DA ZUZENA.' and a blue 'Jarraitu' button with a right arrow is visible.

Ariketak egin ahala, pantailan ikusiko duzu zenbateko aurrerapena egin duzun.



5. Jarraipen-pantaila

Edozein unetan, arlo bakoitzeko emaitzak aztertzeko aukera ere badago. Erabiltzaile bakoitzaren datuak gorde egiten ditu programak, eta nahi denean ikus daitezke.



Hasierako pantailan bertan, dagokion arloko *Emaitzak* atala klikatu, eta arloaren koaderno bakoitzeko informazioa emango dizu:

Oporretako Koaderno Digitala 3. maila

E euskara eta literatura

	Progresioa	Saioak	Ariketa kopurua	Zuzentasuna	Denbora
01. koadernoa	0 / 25	0	0	%0	00:00:00
02. koadernoa	0 / 25	0	0	%0	00:00:00
03. koadernoa	0 / 6	0	0	%0	00:00:00
04. koadernoa	0 / 6	0	0	%0	00:00:00
05. koadernoa					

Progresioa: Ariketa egiten ari zaren bitartean azaltzen den informazio bera da. Koaderno bakoitzean dagoen gelaxka kopuru osotik, zenbat osatu dituzun.

Saioak: Osatuta dauden gelaxkak zenbat saiotan egin dituzun adierazten du.

Ariketa kopurua: osatu dituzun gelaxka guztien artean, guztira zenbat ariketa egin dituzun adierazten du.

Zuzentasuna: egin dituzun ariketetatik, zuzen eginak zenbat diren adierazten du, ehunenekoetan.

Denbora: Saio guztien artean, ariketak egiten zenbat denbora eman duzun adierazten du.

6. Ordenagailuaren erabileraren inguruan hainbat ohar:

Ohar hauek, Firefox nabigatzailearen berezitasun orokorrei buruzkoak dira. Aplikazioak Interneteko Firefox nabigatzailea erabiltzen duenez, ongi datorkizu horien berri izatea:

- F5 tekla: Web-orria freskatzeko edo berritzeko balio du.
- F11 tekla: Nabigatzailearen ikuspegia pantaila osoan jartzeko eta kentzeko balio du.
- Zer egin ordenagailua blokeatzen bada?
 - 1) Ctrl+Alt+Supr botoiak batera sakatu, eta Web-prozesua ezabatu.
 - 2) Ctrl+Alt+Atzera_Ezabatu botoiak batera sakatuta, saioa berrabiaraziko da.

-
-
- 3) Pizteko edo itzaltzeko botoia sakatuta eduki, eta ordenagailua berrabiarazi.

Oporretako Koaderno Digitalen (OKD) LAN TALDEA

IKASYS sistemaren LANTALDEA

Zuzendaritza orokorra

Iñaki Lekuona

Zuzendaritza teknikoa

Josune Gereka

Zuzendaritza taldea

J.Iñaki Etxezarreta, Maite Gomez, Josune Gereka, Iñaki Lekuona eta Oihan Odriozola

Koordinatzaile orokorra

Maite Gomez

Hardware eta Software arduradunak

Oihan Odriozola eta Yon Zubizarreta

Softwarearen diseinu eta garapen taldea

Iulen Asurmendi, Manex Etxabe, Naiara Maya, Jaione Medrano, Yon Zubizarreta

Arloetako eduki kurrikularren garapenaren arduraduna

Mikele Aldasoro

Arloetako edukien arduraduna

Maite Gomez

Edukien garapenerako koordinatzaile eta teknikariak

Amaia Artolazabal, Nerea Goiri, Phil Ball, Emilio Etxabe, Irati Etxebeste, Neide Garmendia, Bea Lasagabaster, Amaia Arroyo

Edukiaren diseinu eta garapen taldea

Orioko Herri Ikastola (Orio)

Koordinatzailea: Arantxa Solaberrieta

Egileak:

Euskara: Imanol Etxabe, Amaia Ugalde, Eneritz Odriozola, Ainara Peña, Aiora Larrañaga

Gaztelania: Arantxa Solaberrieta, Elisa Manterola, Mentxu Oliden, Shua Larrañaga

Arizmendi Ikastola (Leintz bailara)

Koordinatzailea: Arantxa Etxeberria

Egileak: Arantxa Etxeberria, Ana Rosa Urrutia, M^a Flor Roa, Miren Jone Urrutia, Eukene Mondragon.

Aita Larramendi Ikastola (Andoain)

Koordinatzailea: Emilio Etxabe

Egileak: Ana Mari Aranburu, Unai Azpiroz

Elgoibarko ikastola (Elgoibar)

Koordinatzailea: M. Kruz Intxausti

Egileak: Arantza Endeiza, M. Karmen Azpiazu, Egoitz Irure

Axular lizeoa (Donostia)

Koordinatzailea: ItziarRedondo

Egileak: ItziarRedondo, Mari Jose Alonso, Sara Olaizola

Jakintza ikastola (Ordizia)

Koordinatzailea: Idoia Arteaga

Egileak: Mirian Iturrioz, Ainhitze Etxeberria, Mertxe Saez

San Benito ikastola (Lazkao)

Koordinatzailea: Jon Mikel Galparsoro

Egileak: Amaia Oiarbide, Maite Aldasoro, Josune Aranburu, Jose Luis Etxezarreta, Edurne Muxika, Jon Mikel Galparsoro

Santo Tomas lizeoa (Donostia)

Koordinatzailea: Nerea Loinaz

Egileak: Nerea Loinaz, Imanol Yarza, Maria Dorronsoro

Irudiak

Kepa de Orbe, Dani Maiz

Hizkuntzaren egokitzailea

Arkaitz Goikoetxea, Rupert Lindsay, Hitzurun S.L.

Audioak

Mixer S.L.

Ahotsak: Loinaz Jauregi, Kiko Jauregi, Diana Lindsay, Rupert Lindsay, Mark Stutter

OKD - Oporretako Koaderno Digitalen sorkuntzarako LANTALDEA**Koadernoen sorkuntza eta garapenerako taldea**

Maite Gomez, Irati Etxebeste, Xabier Garcia, Nerea Goiri, Neide Garmendia, Emilio Etxabe, Oihan Odriozola, Bea Lasagabaster

OKDak garatzeko talde teknikoa

Xabier Illarreta, Josu Igoa, Ander Iturburu, Oihan Odriozola, Yon Zubizarreta

Diseinu grafikoa

Aritz Trueba, Mikel Harreguy

Kaxa eta triptikoa

Aritz Trueba, Iker Torres

Laguntza teknikoa

Ikastolen Elkarteko IKT taldea

Hizkuntzaren egokitzailea

Arkaitz Goikoetxea